

2026.eko otsailak 4 | Lemoako Udala

INFORMAZIO BULETINA

**HELBURUA: ERAIKINETAN BIZI
DIREN PERTSONEN
SEGURTASUNA BERMATZEA,
PERTSONENTZAKO
ELEKTRIZITATE- ETA SUTE-
ARRISKU LARRIA DELA ETA**

SEGURTASUN- DISPOSITIBOA

CEMENTOS LEMONAK AGARREN DITUEN ETXEBIZITZETAN



Urtarrilak 23

Elektrizitatea hornitzen duen enpresaren txostena jaso zuen udalak, arrisku larriari buruz ohartaraziz. Gizarte-zerbitzuak informaziorako eta beharrei erantzuteko lanean jarri ziren.

Urtarrilak 24

Egoeraren berri ematen hasi zen.

Urtarrilak 27

Informazio-bilera Agarren, Biltzenen laguntzarekin.

Urtarrilak 27-29

Familiak birkokatu ziren.

Urtarrilak 28

Banakako bilerak eta alkatetzaren ebazpenaren jakinarazpenak.

29 de enero

Seraikinak borondatez hustu ziren eta 32 etxebizitzatetik 17 hutsik geratu ziren.



Lemoako Udala



Eusko Jaurlaritza



Bizkaiko Foru Aldundia



Arratiako Mankomunitatea



Hirugarren sektoreko entitateak

GAKO NAGUSIAK 10 ERANTZUNETAN



Zergatik hasi du Lemoako Udalak Agarreko etxebizitzak okupatzen dituzten pertsonak birkokatzeko prozesua?

Urtarrilaren 23an, udalak elektrizitatea hornitzen duen enpresaren txosten bat jaso zuen, sute-egoera larri baten berri emanez. Egoera horren aurrean, udalak pertsonen segurtasuna bermatu behar du. Txosten juridiko bat egin zen, ondorioztatzen zuena eraikin horietan ezin dela inor bizi. 24 ordu eman ziren etxebizitza hutsik gera zedin alkatetzaren ebazpen baten bidez.

Zer gertatu zen joan den ostegunean, urtarrilaren 29an?

Ostegunean, urtarrilaren 29an, Udala alkatetzaren agindua betearazten hasi zen. Horren arabera, Agarreko pisuetan jarraitzen zuten okupatuek etxebizitzak utzi behar zituzten segurtasun arrisku larriagatik. Aurretik, aste oso batean zehar, gizarte-zerbitzuek, Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, lan egin zuten familiak birkokatzen eta alternatibak eskaintzen, bai ostatuari dagokionez, bai okupatzaileei laguntza eta heziketa ibilbideak eskaintzeko.

Harremanetan jarri al zen udala aurretik okupekin?

Bai. Urtarrilaren 23an banakako bilerak egiten hasi ginen familia okupekin. Gizarte-langileak eta Integrazioarako eta Kultura arteko Bizikidetzarako Eusko Jaurlaritzaren Biltzen zerbitzua, beste erakunde batzuekin eta itzulpen-zerbitzuarekin batera, egoera azaltzen eta banakako konponbideak proposatzen hasi ziren, diagnostikoen arabera eta kasu bakoitzari egokitutako premiak kontuan hartuta.



Zein izan da Ertzaintzaren zeregina?

Segurtasuna bermatzea eta erasoak saihestea. Ertzaintzak hainbat aldiz lagundu dio diziplina anitzeko lan-taldeari etxebizitzetan nor bizi den zehatz-mehatz egiaztatzen eta lehendik ezagutzen ziren datuak egiaztatzen.

Mankomunitateko gizarte-laguntzako zerbitzuek egiten zuten jarraipenaren bidez, datuak eguneratuta zeudela ziurtatu beharra zegoen, denak kontuan izateko. Beraz, artatutako pertsonen erregistroak berme guztiak ditu eta denei opatu zaie aukera bat. Euskal Poliziak laguntza eman du segurtasuna bermatzeko eta Agarren bizi diren pertsonen arteko gatazkak ere saihesteko.

Zer gertatu da eraikinetatik borondatez atera diren pertsonekin?

Familiak herri desberdinetan daude eta udalaren proposamena onartu duten gazteek gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko ibilbideak hasiko dituzte.

Zergatik dago jendea oraindik eraikinetan?

Pertsona batzuek ez dute onartu proposatu zaien irtenbidea, ez dute onartu emandako laguntza, eta han jarraitzen dute.


Eta zer egingo du udalak?

Pertsonen segurtasuna bermatzeko lan handiak jarraituko du datozen egunetan. Arriskuak bere horretan dirau, eta suaren ondorioz gorabeheraren bat ere izan da da. Bitartean, dispositiboak jarraituko du etxebizitza hutsak, jabetzak alarमतuta jarraitzen dute egun, berriro okupatu ez daitezen.

Arratieko Sare Antirraziztak gezurretan aritzea, gardentasun falta eta pertsonak kalean uztea leporatu dio Udalari. Egia al da?

Ez. Urtarrilaren 23an, oposizioan dagoen udaleko talde politikoari egoeraren berri eman zitzaion, eta, ondoren, herritarrei hainbat komunikabideren bidez eman zitzaion informazioa. Gezurra da etxebizitzat utzarazteko agindu masibo, express, opako eta irregularrik egon denik. Erabili diren irizpideak publikoak dira, eta berme juridikoa eta teknikoa dituzte.

Garrantzitsua da azpimarratzea erregistratuta zeuden pertsona guztiek izan dituztela birkokatzeko aukerak eta behin eta berri eskaini zaiela gizarte baliabideak erabiltzeko aukera. Eurretako batzuek uko egin diete eskaini zaizkien aukerei.



Zer egingo da eraikinekin?

Lemoako Udalak Cementos Lemonari eskatu dio Agarreko bi eraikinak lagatzeko, etxebizitza sozial bihur daitezen. Eraikinak titulartasun publikokoak izatera igarotzen direnean, birgaitu egingo dira, alokairu-erregimenean horiek eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonen zerbitzura jar daitezen. Udalak behar duten Lemoako bizilagunei etxebizitza publikoa eskuratzeko aukera eman nahi die.

Itzuliko al dira etxebizitzak okupatu dituzten pertsonak?

Ez. Etorkizunean ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak eskuratu ahal izango dituzte etxebizitzak.